

FEVAS



Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundeen euskal Elkarte

C/ Colón de Larreategui, 26 bajo C
48009 Bilbao
Tfno.: 94 421 14 76
comunicacion@fevas.org

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakundeak ordezkatzeko ditugu. Gure xedea, alde batetik, talde horri eta familiei ematen zaizkien laguntzak eta aukerak hobetzea da eta, bestetik, gizarte inklusiboagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa lortzea, pertsona bakoitzak bere bizitza proiektua aurrera eraman ahal dezan.

Une honetan, 13 erakundek, adimen edo garapen urritasuna duten 10.750 pertsonak, 10.275 familiak, 2.050 profesionalek eta 1.272 boluntariok osatzen dugu FEVAS. Hori dela eta, adimen urritasunaren alorreko Euskadiko erakunde egitura garrantzitsua da.

Kide diren erakundeak:

- **GIPUZKOA:** Aspace Gipuzkoa, Atzegi, Fundación Tutelar Atzegi, Gautena, Fundación Goyeneche y Uliazpi.
- **BIZKAIA:** Aspace Bizkaia, Apnabi- Autismo Bizkaia, Futubide, Gaude, Gorabide.
- **ÁRABA:** Apdema y Fundación Tutelar Usoa.

Zerbitzu eta Programa sarea:

- Eguneko 57 Arreta Zentro
- 5 Zentro Okupazional
- Hezkuntza Bereziko 5 ikastetxe eta kontzertaturiko 38 Hezkuntza unitate
- Arreta Goiztiarreko 12 Unitate
- 83 Egoitza Unitate
- 45 Aisia gune
- Enplegurako 2 Zentro Berezi
- 3 Tutela Zerbitzu
- Kontzertaturiko 2 Zerbitzu Soziosanitario
- 4 Autokudeatzaile programa
- Familientzako zenbait orientazio, prestakuntza eta laguntza programa.

FEVASen lan eremuak, zenbait sail estrategikotan sartzen dira: eragin soziala eta politikoa; komunikazioa eta gizarte sentsibilizazioa; interes taldeei zuzendutako prestakuntza; adimen urritasuna duten pertsonen enpoderamendua, arreta berezia eskainiz irisgarritasun kognitiboaren sustapenari; hezkuntza inklusibo ereduaren sustapena; I+G+b; eta Arreta eta Antolakuntza Eredu berrien garapena. Horiek guztiak, eskubideen alorrean aurrera egiteko eta pertsona guztien erabateko inklusioa posible izango den gizarte eraikitze xedez.